

**ERREFUXIATU ETA IHESLARIAK.** Gaur Ondarroara iritsiko dira

MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

**Askatasunaren Urratsak omenaldia egin die iheslarien senitartekoei, Gernika-Lumon**

Bere bigarren egunean, Askatasunaren Urratsa ibilaldia Gernika-Lumora iritsi zen atzo iluntzean. Bertako plazan, omenaldia eskaini zitzaizen herriko iheslarien senideei. Martxak Basaurin ekin zion atzoko etapari, goizean goiz: 70 lagun inguruk Galdakao-rako bidea hartu zuten munduan sakabanaturik dauden bi mila iheslarietako sostengua adierazi asmoz. Galdakaon 120 bat lagunek egin zieten ongiatorria eta handik marxistak Lemoara lehenbizi, eta gero Zornotzara abiatu ziren. Martxa eguerdi aldera iritsi zen Zornotzara (argazkian) eta bertan egin zuten otordua. Aurrez, baina, iheslari eta preso familien omenezko ekitaldi politikoa izan zen Joxe Etxebarri preso ohiaren eskutik. Martxa Gernikatik irtengo da gaur eta, Lekeitiotik, Ondarroara iritsiko da.

**EUSKAL PRESOK.** Bihar hitzordua dute Nafarroako Parlamentuan

JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

**Bautista Barandalla aske uzteko eskatu dute Iruñeko Auzitegi aurrean bilduta**

Bautista Barandalla presoaren askatasuna aldarrikatu zuten atzo 50 lagun inguruk, Iruñeko Lurralde Auzitegian egindako elkarretaratzean. *Bautista etxia. 92. artikulua orain* idatzia zuen pankartaren atzean jarri ziren eta ordu erdi egin zuten epaitegi atarian. Bihar Jose Luis Castejon Nafarroako Parlamentuko presidentearekin eta alderdietako bozeramaleekin biltzekoak dira Etxerat elkarteak, presoaren senideak eta Barandallaren askatasunaren aldeko *Bautista etxia* plataformako ordezkariak. Bileran presoak gaitz larri eta sendaezina duela azalduko zaie alderdietako bozeramaleei. Hori dela-eta, Barandalla aske uzteko eskaera onartzeko eskatuko zaie. Ekimenekin jarraituz, plataformak manifestazioa antolatu du hilaren 17rako, Etxarri-Aranatzen, 19:00etan.

**TORTURA.** Inkomunikazioak eta presoan leku aldatzeak torturaren jarraipena egitea zailtzen dutela dio Sottasek

Erredakzioa | DONOSTIA

Irailaren 11ko gertaeren kariaz, «Espainiako eta Euskal Herriko herritarren zati bat tortura onartzen» hasi da, Eric Sottas OMCT Torturaren Aurkako Mundu Erakundeak atzo Kataluniako *Avui* egunkarian esan zuenez: «Dena da libre terrorismoaren kontrako eraginkortasunaren izenean». Sottasek dioenez, torturak bizirik dirau gaur egun, eta ez Guardia Zibilaren eta Espainiako Poliziaren eskutik bakarrik. «Jokabide horrek Ertzaintzari ere eragiten dio».

Halaber, Etxerat elkartearen eta TAT Torturaren Aurkako Taldearen «kontra egiteko eta bereziki haien egoitzak ixteko agindu zehatzik ez» zegoela nabarmendu zuen Sottasek: «Akusazio argirik ez zegoen». Baltasar Garzon Espainiako Auzitegi Nazionaleko epailearen autoa «interpretatzean» errugabetasun printzipioa ez zutela aintzat hartu uste du. «Froga argi eta serioak eskatzen ditugu».

Sottasen esanetan, «terrorismoa ez gaitzesteak arazo politikoak ekar ditzake, baina inola ere ezin da izan ETA babesteaz akusatzeak arrazoia». Duela gutxi, OMCTk eskutitz bat bidali zion Jose Maria Aznar Es-

**Tortura badela dio OMCTko zuzendariak eta Ertzaintzari ere eragiten diola jarduerak**

Espainiar eta euskal herritar batzuk «onartu» egiten dutela uste du

painiako gobernuburuari, azalpen eske.

Garzonen ebazpen judizialek adierazpen askatasuna eta manifestazio eskubidea arriskuan jar zitzaizkela ere bazioen erakundeak, eskutitz horretan. Dena den, «elkartzeko eskubidea ez da eskubide absolutua, torturatua ez izateko eskubidea bai», Sottasen irudiko; azken horretan, «ez dago balio duen aitzakia edota baldintzarik».

Garbi utzi zuen «Espainian torturatzen jarraitzen» dutela, eta horren erakusgarri iritzi bereko nazioarteko erakundeak aipatu zituen, Amnesty International eta NBERen Torturaren aurkako Batzordea tarteko. Gogorarazi zuenez, azken horrek 1996-2000 epeari buruzko txostena egingo du, azaroaren 12an eta 13an. Sottasen azalpenei jarraiki, nazioarteko erakundeek

**OMCT****Torturaren aurkako GKEak biltzen dituen erakundeak**

Torturaren Aurkako Mundu Erakundeak (OMCT) torturaren aurka jarduten duten gobernu kanpoko 200dik gora elkartek osatzen dute. Tortura kasuak ikertu eta jakinaraztea, eta biktimei laguntzea daude OMCTren zereginen artean. Eric Sottas (Geneva, 1946) du zuzendari; Giza Eskubideen Saria jaso zuen 1986an, Frantziar.

tortura kasuak aurrean «58 eta 90 bitartean» izan direla diote, gehienak «ETAko kideen edo ustezko kideen aurka».

Ertzaintzaren aurkako salaketek sinesgarritasunik badu-

ten galdetuta, Sottasek hala erantzun zuen: «Ezin da pentsatu jokamodu hori Espainiako Poliziarena eta Guardia Zibilarena soilik denik: Ertzaintzari ere eragiten dio». Dena den, torturen erantzuleak gutxi batzuk izaten direla gaineratu zuen.

Ertzaintzak urriaren 24an Uribe-Kosta eskualdean (Bizkaia) atxilotu zituen gazteek eta haien senideetako batzuek tratu txarrrak jasan izana salatu zuten: kolpeak, mehatxuak, sexu laidokak eta haluzinazioak. Josu Jon Imaz Eusko Jaurlaritzako eledunak, ordea, ukatu egin zituen torturak; salaketak «funtzik gabeak» zirela esan zuen, «aurretik izandakoak bezala».

**«Tortura ez da sistematikoa»**

Tortura ez dela «praktika sistematikoa» dio Sottasek. Alabaina, «zigorrik gabe jarduten du-

tenak» kontrolatzea ez da lan-gintza erraza, OMCTko zuzendariaren arabera: inkomunikazioak eta presoak etengabe lekuz aldatzeak «tratu txarren jarraipena egitea zailtzen» dute.

«Segurtasun ezari aurre egiteko Estatuak ezohiko neurriekin erantzun duela da arazoa. Pertsona bat atxilotu eta bost egunez inkomunikatuta izatea oso arriskutsua da. Oso zaila da atxilotuaren benetako babesa bermatzea». Ildo horretatik, Sottasek Espainiako Gobernuaren jarrera kritikatu zuen, 2001ean torturagatik zigortutako Espainiako Poliziako 11 kide eta hiru guardia zibil indultatu dituelako eta «Meliton Manzanos bezalako pertsonaia bat omendu».

**Irailaren 11ko ondorioak**

Haren iritziak, «irailaren 11z geroztik eraginkortasuna beste guztiaren gainetik jarri da. Dena balio du», eta hainbat herritar horrekin ados egotea da okerrena, «Euskal Herriko eta Espainiako herritarren zati batek ideia hori onartzea». Sottak dioenez, «gizarteak jendaurrean terrorismoa bukatzeko edozein neurri balio duela onartzen duen egunean, terrorismoak irabaziko du, horrek bukarerarik gabeko indarkeria ziklo bat ekarriko bailuke».